

Espedientearen kodea: 2022ZZ020014

Espedientearen gaia: 2023an Oiartzunen aurreikusitako edo ohiko kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Maria Victoria Joaristi Olariaga, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2022/12/20n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“2023AN OIARTZUNEN AURREIKUSITAKO KULTUR EKITALDIAK ANTOLATZEKO DIRU LAGUNTZAK BANATZEKO OINARRIAK ONARTZEA

2023 urtean zehar Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzen dituzten herri eragileei, norgehiagoka prozeduraren bidez, dirulaguntzak banatzeko oinarri arautzaileak idatzi ditu Kultura saileko arduradunak. Dirulaguntza hauen indarraldia urtekoa izango da (2023) eta deialdia urtarrilaren 1etik 31a arte egongo da irekita.

Aipatu oinarriak dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzaren (2022/09/20ko GAOn argitaratua), 2022-2024 urteetarako Oiartzungo Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen baitan osatu dira.

Era berean, 2022ko abenduaren 2an egindako Kultura Batzordearen aldeko diktamena jaso dute.

Horrenbestez, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

1. “2023an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartzea, eranskinean jasota dauden moduan.
2. Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 43.250 €ko izendapena egin da, Oiartzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko 1 0801.481.334.00.01.2003 zenbakidun diru-atalaren kontura.
3. Oinarrioren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta osotasunean web orrian.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – www.oiartzun.eus

EUSKAL HERRIA 



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe28f3de5-d021-475a-a8f4-56923e7d18e8**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022ZZ020014-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA)